

# Prestatzaileen prestakuntza

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

Zalantzarik gabe prestatzaile batek diseinu formatiboak egiten jakin behar du eta, aldi berean, besteen diseinuak baloratzen eta hobekuntzarako proposamen argudiatuak ematen jakin behar du.

4. gai honetan balorazioak egiteko irizpide orokorrak aplikatzen ikasiko dugu, eta baita txostena idazten ere.

# 4. Prestakuntza-proposamenak baloratzea

1. Balorazioak egiteko irizpide orokorrak
2. Balorazio-txostenaren idazketa

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 1. Balorazioak egiteko irizpide orokorrak

Prestakuntza diseinu bat baloratzeko irizpideak behar ditugu eta diseinuaren sakoneraren arabera izango dira.

Ondorengo orrietan jasotzen den txantiloian, irizpideak hiru ataletan biltzen dira:

- 1. Diseinu orokorrari buruzko irizpideak**
- 2. Prestakuntza zati bati buruzko irizpideak**
- 3. Lanaren antolakuntzari buruzko irizpideak**

Aurkezten den txantiloia, proposamen bat besterik ez da. Prestatzailearen eskutan dago hurrenkeraren antolakuntza.

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 4.1 Balorazioak egiteko irizpide orokorrak

#### 1) Diseinu orokorrari buruzko irizpideak

Ikastaro honetan landu diren elementu guztiak jasotzen dira: orientabidea/eredua, behar formatiboak, prestakuntza-proposamen baten elementuak ...

#### 2) Prestakuntza zati bati buruzko irizpideak

Atal honetan informazio zehatzagoa jasotzen da. Zenbait diseinuetan sakoneko informazioa jasotzen da; saio bakoitzean egin beharreko guztiaren inguruan.

#### 3) Lanaren antolamenduari buruzko irizpideak

Azken atalean, prestakuntza-proposamenaren alderdi formalei erreparatzen zaie.

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 1. Balorazioak egiteko irizpide orokorrak

#### 1) Diseinu orokorrari buruzko irizpideak

Prestakuntza-proposamenak baloratzeko irizpideak	BAI	EZ	Zergatia/Azalpena
<b>1) Diseinu Orokorra</b>			
1.- Aurkezpen bat /justifikazio orokor bat azaltzen da			
2.- Prestakuntzak duen orientabidea argitzen da			
3.- Prestakuntza diseinuaren testuingurua deskribatzen da			
4.- Beharrak identifikatzen dira			
5.- Beharrak antzemateko prozedura zehazten da			
6.- Prestakuntza diseinua ongi deskribatuta dago			
- Nork eramango du aurrera?			
- Nori zuzenduta dago?			
- Mugatu al da ikasle / parte-hartzaile kopurua?			
- Non eramango da aurrera?			
- Iraupena zehazten da?			
7.- Prestakuntza diseinuaren helburu orokorrak zehazten dira			
- Ongi idatzita daude?			
8.- Gaitasunak ongi idatzita daude			
-Koherentzia dago gaitasunen eta diseinuaren gainerako elementuen artean?			
- Gaitasunen bat garatu gabe dago?			
9.- Metodologia zehazten da			
-Koherentzia dago metodologiaren eta diseinuaren garapenaren artean?			

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 1. Balorazioak egiteko irizpide orokorrak

#### 1) Diseinu orokorrari buruzko irizpideak

Prestakuntza-proposamenak baloratzeko irizpideak	BAI	EZ	Zergatia/Azalpena
<b>10.- Edukiak zehazten dira</b>			
- Zehaztutako edukiak gaitasunei lotuta daude?			
- Aipatzen den metodologia, eta bertan proposatzen diren estrategia formatiboak, zehazten diren edukiekin koherenteak dira?			
<b>11.-Proposatzen den diseinuak marbxan jartzeko aukerak ditu. Zergatik?</b>			
- Baliabide ekonomikoak aipatzen dira			
- Baliabide materialak aipatzen dira			
- Baliabide pertsonalak aipatzen dira			
<b>12.- Ebaluazio sistema ezarrita dago</b>			
- Ebaluazio-sistema egokia al da?			
- Zer, zertarako eta zerekin ebaluatu argi azalduta dago			
- Diseinuaren elementu guztiak ebaluatuta geratzen dira			
<b>13.- Erabili diren informazio iturriak jasotzen dira</b>			
- Erreferentzi bibliografikoak ongi idatzita daude			
<b>14.- Oro har, zer iritzi duzu prestakuntza-diseinuaz?</b>			

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 4.1 Balorazioak egiteko irizpide orokorrak

#### 2) Prestakuntza zati bati buruzko irizpideak

Prestakuntza-proposamenak baloratzeko irizpideak	BAI	EZ	Zergatia/Azalpena
<b>2) Prestakuntza zati bati buruzko irizpideak</b>			
<b>1.- Prestakuntza zati honen aurkezpena /justifikazioa agertzen da</b>			
<b>2.- Prestakuntza zatian erdietsiko diren helburuak aipatzen dira</b>			
- Helburu horiek diseinu orokorraren helburuekin lotuta daude			
<b>3.- Prestakuntza zatian garatuko diren kompetentziak aipatzen dira</b>			
- Diseinuaren zati honetan aipatzen diren gaitasunak diseinu orokorrean aipatzen direnetako batzuk dira			
<b>4.- Prestakuntza zatia aurrera nork eramango duen jasotzen da</b>			
- Zergatik den egokia aipatzen da			
<b>5.- Prestakuntza zatian landuko diren edukiak jasotzen dira</b>			
<b>6.- Jarduerak ongi zehaztuta eta deskribatutak daude</b>			
- Jarduera bakoitza kompetentzi batekin/ batzuekin lotuta dago			
- Jarduera bakoitzean erabiltzen den/diren estrategia formatiboak ongi azalduta daude			
- Jarduerak denboran zehar nola banatzen diren aipatzen da			
- Jarduerak garatzeko behar diren baliabideak deskribatzen dira			



## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 4.1 Balorazioak egiteko irizpide orokorrak

#### 2) Prestakuntza zati bati buruzko irizpideak

Prestakuntza diseinuak baloratzeko irizpideak	BAI	EZ	Zergatia/Azalpena
<b>7.- Jardueraren jarraipena eta ebaluazioa nola egingo den zehazten da</b>			
- Ebaluazio-irizpideak zehazten dira			
- Ebaluazio-tresnak jasotzen dira			
- Ebaluazio-tresnak garatu dira			
- Diseinuaren zati honetan aipatzen den ebaluazio-sistema diseinu orokorraren ebaluazioarekin lotuta dago			
<b>8.- Oro har, zer iritzia duzu zati honen garapenaz?</b>			

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 4.1 Balorazioak egiteko irizpide orokorrak

#### 3) Lanaren antolamenduari buruzko irizpideak

Prestakuntza diseinuak baloratzeko irizpideak	BAI	EZ	Zergatia/Azalpena
<b>3) Lanaren antolamenduari buruzko irizpideak</b>			
<b>1.- Lana ongi idatzita dago (ongi ulertzen da)</b>			
<b>2.- Lanak aurkibide bat dauka eta bertan aipaturako puntu guztiak aurkitzen dira</b>			
<b>3.- Lana txukun eta garbi dago</b>			
<b>4.- Orriak zenbakituta daude</b>			
<b>5.- Oro har, lanaren aurkezpena ona da</b>			
<b>Jaso nahi duzun beste edozein ohar:</b>			

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 4.2 Balorazio-txostenaren idazketa

Prestakuntza-diseinu bati buruzko balorazio-txosten bat idazterakoan, komeni da honako urrats hauek kontuan hartzea:

- 1) Diseinu formatiboa irakurri eta aldamenean oharrak egin: argi geratzen ez diren alderdietan arreta jarri (korapiloak daudelako, diseinuaren elementuak lerrokatuta ez daudelako, kontraesanak antzematen direlako ...)
- 2) Irakurri berriro diseinua eta txantiloia bete.  
(BAI) zutabea: irakurritako irizpideak diseinuan jasotzen badira -X- bat zutabean ipini, eta (EZ) zutabean jasotzen ez bada.
- 3) “Zergatia/azalpena” zutabean oharrak ipini.  
Batzuetan irizpidea agertzen bada ere, ñabardurak jaso nahi ditugu. Beste batzuetan, irizpidea agertzen ez denean, komeni da jasotzea zergatik den garrantzitsua irizpide hori agertzea eta garatzea.

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 4.2 Balorazio-txostenaren idazketa

4) Zutabeak bete ondoren, balorazio-txostena idazten da. Horretarako, ez dago arau finkorik; aitzitik, modu desberdinetan egin daiteke.

➤ Atalei dagokionez:

- Txostena idazten hasteko, alderdi formalak aipa daitezke, ondoren diseinu orokorra eta, azkenik, prestakuntza-diseinuaren zatia.

EDO

- Diseinu orokorretik has daiteke idazten, ondoren prestakuntza-diseinuaren zatia eta, azkenik, alderdi formalak.

➤ Atalen barne-informazioari dagokionez:

1 Alderdi positiboetatik hasi idazten, hau da, diseinuan agertzen diren eta ondo garatuta dauden irizpideetatik.

2 Jarraian, agertzen ez diren irizpideei buruz idazten da. Irizpide horiei buruzko informazioa zergatik agertzea komeni den argudiatzen da.

## 4 Prestakuntza-proposamenak baloratzea

### 4.2 Balorazio-txostenaren idazketa

- 5) Idatzitako guztia errepasatzen da eta azken ekarpenak idazten dira.
- 6) Bakoitzaren idazkiaren alderdi formalak ere zaindu behar dira.

#### Laburbilduz

